

Janari dendan

- Eroslea : Egun on, anderea.
- Saltzailea : Bai zuri ere ! Oinez etorri zira ?
- Eroslea : Ba araz ! Horrelako aroz baliatu behar da kirola pixka baten egiteko ! Ez dea hala ?
- Saltzailea : Bai segurki ! Zer berri zuen auzoan ?
- Eroslea : Egia erran ez naiz sobera jakinean azken egun hauetako euriekin ez baitut jende handirik mintzatu. Bakoitza bere etxean kokatua egona da !
- Saltzailea : Egia duzu ! Niri ere jendea pirka-pirka jin zait.
- Eroslea : Bon ! Ez bainaiz kalakan aritzera jina, hara zer behar dudan : kafe pakete bat, olio pinta bat, kilo bat sagar, dozena bat arroltze, gasna horren laurdena. Iduritzen zait zerbait ahanzten dudala.
- Saltzailea : Harrazu denbora, ez dugu presarik.
- Eroslea : Eta bai ! Irina ! Hori gabe xahu naiz ! Arratsalde honetan matahamiak egin beharrak ditut Pettanen urtebetetze kari.
- Saltzailea : Zenbat urte egiten du ?
- Eroslea : Zazpi !
- Saltzailea : Ui,ui,ui,ui ! Denbora nola iragaiten den !
- Eroslea : Bai eta gu harekin ! Funtsean, osagarria duguno, ez dugu zinkurinka aritu behar ! Zenbat zor dizut ?
- Saltzailea : 26,95 euro, plazer baduzu.
- Eroslea : Horra. Orain haia-haia etxerat joan behar dut, orea egin eta oren batez bederen pausatzera utzi behar baita. Egun on eta ondoko egunak arte !
- Saltzailea : Krakada on eta laster arte !

Jokalariak : Saltzailea eta eroslea
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti